



# Soziolinguistica albistaria

**102. zenbakia**

2021eko ekainak 11 – ekainak 24

## Soziolinguistica Klusterreko albisteak

**Txillardegi-Hausnartu soziolinguistica sarietara lanak aurkezteko epea ireki da**

2008. urtean sortu zenetik, lehiaketaren helburu nagusia euskal soziolinguistica teorikoaren eta metodologikoaren garapena eta berrikuntza da. Euskal soziolinguistikaren ikerlarien lana bultzatzea eta ikerlari berriak eremu honetara biltzea bilatzen da.

**Kataluniako Generalitateko ikerketa soziolinguistikoaren arduradunekin bilera**

Pasa den ekainaren 14an Soziolinguistica Klusterraren zuzendari Imanol Larrea Kataluniako Generalitateko Hizkuntza Politika Zuzendaritzako arduradunekin bildu zen Bartzelonan. Bileran erakunde bakoitzak bere une honetako jardunaren berri eman zuen eta interesgune komunak identifikatzeko balio izan zuen.

**UPV/EHUko fakultateetako eremu ez-formaletan %7 eta %52 artekoa da euskararen erabilera**

2020-2021 ikasturtean zazpi fakultate berritan hizkuntzen erabilera neurtu du Soziolinguistica Klusterrak. Erabileraren neurketa UPV/EHUn "Aktibatu" programaren baitan kokatzen da, eta Donostiako Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

**Pandemiaren agerpenak proban jarri ditu erakundeen komunikazio praktikak eta hizkuntzak kudeatzeko moldeak**

Soziolinguistika Klusterrak eta Euskal Herriko Unibertsitateak elkarlanean garatzen duten Jendaurrean Erabili proiektuan "COVID-19aren eragina erakundeen komunikazio publikoan" ikerketa egin dute 2020 eta 2021 artean.

## **Gipuzkoa Berdinago Buletina: erakundeen komunikazioa eta hizkuntzen kudeaketari buruzko albisteak posta elektronikoz**

Gipuzkoa Berdinago egitasmoa 2016 urtean sortu zen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez eta Soziolinguistika Klusterraren koordinaziopean, Iurraldean hizkuntza berdintasunaren alde egiteko. Orain, baliabide berri bat jarriko da martxan.

### **Ikerketak**

#### **UEMAko kide diren herriean, osasun zerbitzu publikoetako bost langiletik batek ez daki euskaraz; pediatren kasuan, berriz, hirutik bat ez da euskalduna**

[UEMA] UEMAko kide diren 90 udalerrietako osasun zerbitzu publikoetako datuak behatu, aztertu eta herritarren hizkuntza eskubideak zenbateraino bermatzen diren neurtu du UEMAk, eta egindako lanaren emaitza aurkeztu du Eusko Legebiltzarrean

#### **Estudi sociolingüístic als patis dels instituts públics de Valls**

[Plataforma per la Llengua] Amb la voluntat de continuar posant el termòmetre de la llengua allà on fa falta, hem elaborat aquest informe, que reflecteix la situació del català entre el jovent dels instituts públics de Valls.

### **Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak**

#### **Uztailaren 5etik 7ra Interakzionismo Sozio-Diskurtsiboaren (ISD) VII. Nazioarteko Kongresua izango da Donostian**

[ELEBILAB ikerketa-taldea] Kongresu honetan hizkuntzaren interakzionismo sozio-diskurtsiboarekin lotutako ikerketak partekatuko ditugu gure ezagutza eguneratzeko. Zazigarren topaketa horretan garrantzi berezia emango zaio irakaskuntza eleanitzunari.

#### **Lehen hizkuntzaren hautua eta harreman sarea, euskararen transmisiorako gakoak**

[Berria] Euskarak gurasoengandik seme-alabekiko jauzia egin dezan, hizkuntza gaitasuna bezain garrantzitsua da bere erabilera. Adibide bat: guraso euskaldun bakarra duten familietan, honek euskara lehen hizkuntza gisa erabiltzen badu, kasuen %88an transmisioa gauzatu egiten da.

## «Prest gaude adimen artifizialaren olaturako»

[Berria] Itzulpen automatikoak, hizkuntza ezagutzeko sistemak, ahots sintesirako tresnak... Injurune digitalera ongi egokitzen ez diren hizkuntzei «iraupen zaila» iragartzen die Josu Aztiria Elhuyarreko kideak (Zumarraga, Gipuzkoa, 1978). Ikuspegi horrekin, Linguatec kongresua ospatu zuten Donostian.

## (Call for Papers) **SOCIOLINGUISTICS SYMPOSIUM Inside and beyond binaries** **24 13-16 July 2022 - Ghent**

[Sociolinguistics Symposium] SS24 invites submissions for (1) standalone papers, (2) colloquia and (3) posters. For each category, we offer an on site variant, with participants attending in a meeting room in Ghent, and an online e-variant, which is recorded beforehand.

## **Seminar: One Year On from the Gaelic Crisis 11am 2nd July 2021 + new publication in Scottish Affairs**

[University of the Highlands and the Islands] To mark the anniversary of the publication of the Gaelic Crisis in the Vernacular Community last July, the UHI's HARC and SILK Research Clusters, in conjunction with the UHI Language Sciences Institute, are hosting a panel to reflect on this matter.

---

## **Liburuak eta artikulu zientifikoak**

### **Euskarari buruzko 2020ko HABERen bibliografia hautatua**

[HABE] Duela hiru urte hasitako bideari jarraituz, HABE Liburutegian ondu dugun Euskarari buruzko 2020ko bibliografia hautatua osatu dugu zerrenda honetan. Bertan, 138 erreferentzia bibliografiko aurkituko dituzu alfabetikoki ordenatuta.

### **Exigir el conocimiento del euskera para acceder a la función pública ¿discrimina? – Iñigo Urrutia Libarona**

[Blog RLD] Recientemente el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha anulado un procedimiento selectivo de acceso a la función pública dirigido a cubrir doce plazas de agente de policía local del Ayuntamiento de Irún.

### **A behavioural model of minority language shift: Theory and empirical evidence**

[PLoS ONE] Natural languages with their speech communities tend to compete for speakers, very much like firms compete for market shares. As a result, some languages suffer a shifting pressure which might lead them to their extinction. This work studies the dynamics of minority language use (e.g. Basque).

## La Revista de Llengua i Dret arriba al número 75 amb una secció monogràfica sobre llengua i educació

[Revista Llengua i Dret] L'Escola d'Administració Pública de Catalunya (EAPC) ha publicat aquest mes de juny el número 75 de la Revista de Llengua i Dret, Journal of Language and Law, el qual incorpora una secció monogràfica amb set articles sobre llengua i educació.

### **Jan Blommaert and the use of sociolinguistics: Critical, political, personal**

[Cambridge University Press] On 7 January 2021, Jan Blommaert died aged 59, after a ten-month battle with cancer. He was an extraordinary person and a brilliant academic, and there have been a great many very moving personal accounts of how much Jan meant to the people.

*Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean HABE Liburutegira ([liburuteqj@habe.eus](mailto:liburuteqj@habe.eus)), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.*

## Bestelako albisteak

### **Batuz aldatu: heldu da hizkuntza-politiketan jauzia egiteko ordua**

[Kontseilua] Batuz aldatu izena hartuko du gaurtik aurrera Euskalgintzaren Kontseiluak hizkuntza-politiketan eragiteko adostasun sozialen ekimenak, eta jauzia izan da ekitaldian zehar azken hilabeteotan garatutako prozesua irudikatzeko baliatu duen irudia.



**Babeslea:**



**Bazkide partaidea:**

